


# 2010eko Urteko Txostena





900 10 11 43

[www.gaztempresa.com](http://www.gaztempresa.com)

[bizkaia@gaztempresa.com](mailto:bizkaia@gaztempresa.com)  
[gipuzkoa@gaztempresa.com](mailto:gipuzkoa@gaztempresa.com)  
[alava@gaztempresa.com](mailto:alava@gaztempresa.com)  
[navarra@gaztempresa.com](mailto:navarra@gaztempresa.com)

sortzailea



finantzatzaileak  
EAEkoak



Con la colaboración del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco y del Fondo Social Europeo, a través del Programa Operativo de Objetivo competitividad y empleo 2007-2013



finantzatzaileak  
Nafarroakoak





# Aurkibidea

Lehendakariaren gutuna 7

GAZTEMPRESA, nor garen 8

Gaztempresaosatzen duten pertsonak jardun-lerroak 10

JARDUN-LERROAK

- enpresak sortzea 14
- enpresak sendotzea 18
- ekintzailea sustatzea 25

Gaztempresa komunitatea 28

Proiektu bat  
baduzu,  
hementxe gaituzu

gaztEmpresa



# Lehendakariaren gutuna

2010ean gertatutako berrikuntza ekonomikoak aztertzeko garaian, ezinbestean aipatu beharra dago “erreskatea”, horixe izan baita, seguru asko, berrikuntza nagusia; hain zuzen ere, Greziak, lehenik, eta Irlandak, ondoren, “erreskatea” behar izana, eta premia hori Portugalera eta are Espainiara hedatzeko arriskua (guztiz baztertu gabeko aukera baita, lan hau idazteko garaian).

Gertaera horrek teoriaren esparruan besterik aurreikusten ez zen errealitate larri bat erakutsi die europar herritarrei: estatuak gasturako eta zorpetzeko gaitasun mugatua dutela. Horrek esan nahi du, ezingo dutela beren herritarren eskakizunei eta premiei erantzuten jarraitu, eskakizun eta premia horiek guztiz justifikatuak izan arren.

Bestalde, gertaera horrek goitik behera suntsitu du merkatuen globalizazioa baino askoz ere lehenago Keyesen teorian formulatutako ilusio bat, ezin atsegingarriagoa gertatzen zena: krisitik irteteko, gehiago gastatu beharra dago.

Izan ere, Espainiak eta haren moduko beste estatu batzuek, zailtasunei aurre egiteko gero eta gehiago gastatzearen aldeko apustua egin zuten –apusturik erosoena, alegia–, baina, bide horretatik, zailtasunak murriztu ordez, izugarri larriagotu besterik ez dira egin; hainbeste, non kolokan baitago Gobernuak egoera bere kabuz kontrolatzeko gaitasuna ere.

Hain zuzen ere, Espainiako sektore publikoan, 2007an oreka zegoen diru-sarrera eta gastu publikoen artean; eta, aldiz, 2009an, gastuak diru-sarrerak halako bi izan ziren. Euskadiri dagokionez, sektore publikoak superabita zuen, eta zorpetzea oso txikia zen; eta ekoizpen-ekonomia nazioarteko merkatuetara bideratuta zegoen, batik bat. Hala, kopuruak askoz hobeak izan dira, baina ezin esan kezkatzeko arrazoirik ez dagoenik.

Illo horretatik, BPGaren hazkunde positiboa izan da (%0,3), baina ez langabeziaren hazkundera geldiarazteko adina. Urte amaieran, %9,9koa zen langabezia-tasa; hau da, Espainiaren batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa, baina herrialde nagusiena baino nabarmen altuagoa.

Testuinguru horretan, are garrantzi handiagoa hartu du Fundazioaren jarduerak; izan ere, gazteek laguntza jasotzeko inoiz baino premia handiagoa izan dute enpresa-ekimen berriak abian jartzeko.

Eta, gainera, laguntza hori emateko garaian, Fundazioak ahal zuen neurrian murriztu egin behar izan du bere finantzatzaile nagusiei (Euskadiko Kutxa eta Eusko Jaurlaritza) egin beharreko baliabide ekonomikoen eskaria, bere gain hartuta lehen deskribatu dugun ingurune ekonomiko konplexuari dagokion neurriko erantzukizuna.

Labur esanda, “gutxiagorekin gehiago” egin beharra zegoen, managementaren arloan nabarmendu izan den emakume apurretako baten, Rosabeth Moss Kanterren, esaldiak dioen moduan. Hala, Fundazioko profesionalek 1.186 proiektu aztertu dituzte (finkatutako helburuaren %114), eta 574 bideragarritasun-ikerketa egin dituzte (aurreikusitakoaren %120).

Azkenik, 267 enpresa txiki sortzen lagundu dute, eta enpresa horien bidez 426 lanpostu sortu dira (plangintzan aurreikusitakoaren antzeko kopuruak).

Baina, gainera, nabarmen murriztu dira funtzionamendu- eta egitura-gastuak, eta kalitate eraginkorraren maila altua izan da, emandako maileguen berankortasuna apalagoa baita (%2,3) sektorekoaren batez bestekoa eta Euskadiko Kutzakoaren beraren batez bestekoa baino.

Bestalde, suspertu egin da aurreko urteetan sortutako enpresak sendotzeko ahalegina, eta bide horretan aurrera egiteko asmoa dago datozen urteei begira ere; hain zuzen ere, sortutako enpresen iraupen-indize altuari eutsi nahi zaio, baita egoera zailtan ere. Azpimarratzekoa da Fundazioak egindako ikerketa baten arabera, %77koa dela indizea.

Amaitzeko, Bultz Laneko profesionalen jarduera nabarmendu nahi nuke. Erakundearen zerbitzura diharduten profesional horiek baitira, Euskadiko Kutzako bulegoetako kideekin batera, zerbitzuaren benetako protagonistak. Izan ere, erabateko prestutasunez eskaintzen dituzten ahalmen profesionalari eta aholkularitza teknikorako eta laguntza pertsonalerako gaitasun pertsonalei esker, ekintzaile berriei askoz ere errazagoa gertatuko zaie hasiera doazen ibilbide ezezagun horretan aurrera egitea.

**Juan Manuel Sinde**

Gaztempresa fundazioaren lehendakaria





# Gaztempresa

Gaztempresa Fundazioa erakunde pribatua da, irabazi-asmorik gabekoa. Euskadiko Kutxaren gizarte-ekintzaren barruan txertatuta dago, eta haxe du helburu nagusia: **enplegua sortzeko eta enpleguari eusten laguntzeko ekimenak sustatzea eta ekintzak bideratzea**. Horretarako, hainbat programa eta zerbitzu antolatzen ditu, bere erabiltzaileen, erakunde aliatuen eta, oro har, gizartearen enpresa- eta lanbide-arloko garapenari balioa emateko.

## Honako hauei begira dihardu Fundazioak:


- Pertsona ekintzaileak, batik bat gazteak.
- Lan-arloan eta gizartean zailtasunak dituzten pertsonak eta taldeak.
- Mikroenpresa gazteak, garapen-proiektuak lantzen dituztenak.
- Ikasleen artean ekintzailatza sustatu nahi duten formazioerakundeak.
- Euskadiko Kutxaren bulegoak.

sarean Lan egiten Dugu 



bikain!







## Patronatua

Juan Manuel Sinde

Jon Emaldi

Antonio Salas

Jose M<sup>a</sup> Usatorre

Koldo Aizpurua

Pello Ugalde

Juan Ramón Melgosa

Alfonso García

# Gaztempresa osatzen dugun pertsonak

## Bizkaiko Lurralde Batz

Javier Blanco

Iñaki García

Amaia Ceciaga

Josetxu Urrutia

Eduardo Beasain

Aitor Berlanga

Estibaliz Jauregi

Iker Etxebarrieta

## Gipuzkoako Lurralde Batzordeak

Arantxa Olaizola

Juan M<sup>a</sup> Osteriz

Pedro Cousillas

Gema Olabide

Conchi Gallastegi

Javier Larrañaga

Iñaki Zamorano

Iñaki Juanbeltz

Ibon Otaegi

## Arabako Lurralde Batzordeak

Alberto Pérez de Eulate

Belen Larrauri

Pedro María Jimenez

Luis Daniel Bernal

Jokin Longarte

## Nafarroako Lurralde Batzordeak

Xabier Zabaltza

Aitor Azpiazu


Pello Bayona

Alfonso Jiménez

Manuel Romeo

Iñigo Etxarri

Ignacio Ramirez



# JARDUN-LERROAK

enpresak sortzea  
enpresak sendotzea  
ekintzailea sustatzea





ZUK IDEIA JARRI  
GU ARDURATUKO GARA  
GAINERAKOAZ

267 ENPRESA sortu ditugu  
426 LANPOSTU sortu ditugu

# enPresak sortzea

helburu nagusia

**Enpresa-ekimenak** garatzen **laguntzea**,  
negozio-ideia bat duten eta autoenpleguaren  
bidea hartu nahi duten pertsonen.

## 2010EAN SORTUTAKO ENPRESAK

ARABA	23
BIZKAIA	125
GIPUZKOA	86
NAFARROA	33
GUZTIRA:	267


## 2010EAN SORTUTAKO LANPOSTUAK

ARABA	41
BIZKAIA	205
GIPUZKOA	119
NAFARROA	61
GUZTIRA:	426



## Programaren bilakaera

Gaztempresa 1994. urtean sortu zen, eta, gaurdaino, **2.598 enpresari** lagundu die, eta, laguntza horri esker, **4.719 lanpostu** sortu dira.



4.800  
LanPostu  
inguru



2.600  
enpresa  
inguru



## EKintzaileen Profila, 2010

%52  
emakumeak

%48  
gizonak

36,2 urte  
batez beste

ikasketa maila:

%73  
unibertsitateko  
kanpokoak

%27  
unibertsitate  
ikasketak

Lan-egoera:

%78  
Lang.

%22  
Aktiboak

forma juridikoa:

%20  
OE

%3  
KOOP


%68  
indibiduala

%9  
S.M.

Jarduera-sektorea:

Zerbitzuak  
%72

Merkataritza  
%28



2010ean, 57.500 euroko inbertsioa egin da, batez beste, enpresa berriak abian jartzeko.

20010ean, 39.300 euroko mailegua behar izan da, batez beste enpresa-proiektuak gauzatzeko.

57,5 (milaka eurotan)  
inbertsiotan  
batez beste

39,3 (milaka eurotan)  
mailegutuan  
batez beste

# enPresak sendotzea

Negoio bat abian jartzea lan gogor eta korapilatsua izaten da. Horregatik, ekimena abian jartzeko prozesu horren ondoren, ahalegin eskerga horren emaitzak sendotzeko garaia etortzen da. Zeregin horretan, **Gaztempresaren laguntza dute enpresaburuek, enpresa berriak merkatuan sendotzea baitu jardun-lerro nagusietako bat.**





## EnPresak sendotzeko, Laguntza hauek ematen ditu Gaztempresak:

- **Enpresak sendotzeari buruzko tailerrak eta mintegiak**, enpresen arabera egokituak.
- Enpresentzako **aholkularitza espezializatua**.
- **Consulting Pro zerbitzua**, enpresentzako kontsulta, diagnostiko eta aholkularitzarako.
- **900 100 240 telefonoaren, webgunearen, newsletterren eta mintegien** bidez, enpresek aukera

dute beren zalantzak argitzeko, lan-arlokoak nahiz zerga-arlokoak, baita negozioaren kudeaketari

loturiko beste edozein arlotakoak ere, hala nola kontratuei, diru-laguntzei eta abarri buruzkoak.

- **Newsletterra, hiru hilean behin** (intereseko informazioa eta artikulak biltzen dituen buletina).
- **On line sarea.**

Enpresaburu berriei eguneroko lanean hartu beharreko erabakietan lagundu nahi diegu, bide hauetatik:

- Norberaren ikuspegia eta erabakiak beste batzuenekin erkatzea.
- Norberarenaz bestelako ikuspuntuak kontuan hartzea.
- Irtenbide egokiak, finantza-baliabideak injektatzetik harago.
- Neurri pertsonalizatuak, arazo bereziak dituzten enpresentzat (inbertsioak, merkatu-aldaketak, ixteko erabakiak...)
- Beste enpresa batzuekiko harreman horizontal nahiz bertikalak.
- Informazioa, esperientziak eta harremana trukatzeko beste enpresa batzuekin, enpresaren onurari begira.



# Gaztempresa sarea

berrikuntzaren  
bidean

ekintzaileen  
Lehen on Line  
sarea





The background of the slide features a network diagram. It consists of several yellow sticky notes scattered across a white background. Each sticky note has a simple line drawing of a person. Black double-headed arrows connect the sticky notes, forming a web-like structure that represents a network. In the center of this network is a green rectangular box containing text and a bulleted list.

## GAZTEMPRESA SAREA

Plataforma honen bidez, abantaila hauek eskaini nahi dizkiegu ekintzaileei:

- Interneten presentzia izatea eta beren negozioen publizitatea egiteko erabiltzea.
- Harremanetan jartzea beste enpresa berri batzuekin, lankidetzak edo transakzioak gauzatzeari begira.
- Gaztempresarekin harreman iraunkorra izatea eta Fundazioarekiko harremanetan protagonismoa izatea.

39 tailer  
eman Ditugu

210 Lagunek  
Parte hatu Dugu  
tailerretan

Dagoeneko  
800 gara sarean

31.000  
bisita webgunean





1.250  
kontsulta

16  
minitegi

400 ENPRESAK  
parte hartu dugu  
mintegietan





# ekintzailletza sustatzea

Babesa eskaintzen diegu ikasleen artean **ekintzailletza eta berrikuntza-proiektuak sustatu nahi dituzten** unibertsitatei eta formazio-zentroei, diru-laguntzen eta ekimen espezifikoaren bidez.



Mondragon  
unibertsitatea

Gaztempresaren babesa, formazio-hitzaldien bidez, topaketa eta lehiaketaren bidez, eta enpresa-ekimenen bidez.

## **EKITEN: Enpresa Ideien Lehiaketa**

- 17 ideia berritzaile aurkeztu ziren.
- Saritutako proiektuak:

1. **saria:** "CO2 bahitzeko argia" .

2. **saria:** "Argia eta mantentze-zerbitzua aurrezte, argiztapen publikoan, udal zerbitzuetarako komunikazio-azpiegituraren bidez".

3. **saria:** "The Arroxa Factory" .

## **LIDERGO EKINTZAILEA ETA BERRIKUNTZA GRADUA (LEINN)**

Mondragon Unibertsitatearen gradu berri honen bidez, enpresen lider izan daitezen trebatu nahi dira pertsonak. Eginez ikasteko lanmetodoan oinarritua da (learning by doing). Horretarako, lehen mailan bertan sortutako talde autogestionatu eta enpresetan antolatzen dira ikasleak. Hala, bezero errealekin eta proiektu errealetan aritzen dira. Zeregin horretan, graduarekin lankidetzan dihardu Gaztempresak, Hitzaldiei nahiz proiektuen garapenari dagokienez.





**TECNUN: Kirol Asmakizun eta Diseinuaren V. Lehiaketa.**

Lehiaketa honen bidez, sorkuntza eta ideien garapena sustatu nahi dira.

Talde-lana eta ideiak sortzeko tekniken erabilera sustatzen du.

Espiritu kritikoa sustatzen du, produktuak hobetzeko.

Marrazketako tresna informatikoen erabilera sustatzen du.

**Saritutako proiektuak:** "Gummi", patinekin ibiltzeko gurpiletarako materiala, eta "Bola", beso artikulatuekiko xurgagailu boladuna.







#### ELORRIETA L.H.

Ekintzailletza sustatzeari begirako hitzaldiak.

#### DONAPEA L.H.

Ekintzaileen egunean egindako hitzaldia. Ikasleen artean ekintzailletza eta enpresa-espirtua sustatzeko xedea du jardunaldi horrek.



#### GAZTELAN FUNDAZIOA - ALDAPA PROGRAMA

“ALDAPA Trebakuntza, oinarrizko enpleguetarako” programaren helburu nagusia da parte-hartzaileen enplegarritasuna areagotzea, lan-merkatu normalizatuko enpresetan gauzatutako lan-esperientzia baten bidez eta ikasgelan enplegu batean aritzeko eta hari eusteko trebetasun pertsonalak ikasiz.

Programa hau Gaztelan Fundazioak kudeatzen du. Erakunde horren helburu nagusia da baztertuta dauden edo baztertuta gelditzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzen laguntzea, lan-arloan txertatuz, eta pertsonak ekonomiaren parte aktibo eta xede izango diren ekonomia solidario bat garatzen laguntzea.



# GAZTEMPRESA KOMUNITATEA

## Jasotako sariak

- Corresponsables Fundazioa.
- Berrikuntzaren saria (Euskalit).
- San Prudencio Lan Fundazioaren sariak.

## SARE SOZIAL ekintzak

- FACEBOOK
- TWITTER
- LINKEDIN
- YouTube

## GAZTEMPRESA SAREA

- Ekitaldiak, jardunaldiak
- Berriak
- Arituak
- Lan-eskaintzak



# Gaztempresa Komunitatea

Sari hauek jaso ditugu, Euskadiko Kutzaren Gizarte Erantzukizunaren parte gisa.

## SARIAK

### **CORRESPONSABLES FUNDAZIOAREN SARIAK**

Corresponsables sariak enpresek eta organismoek gizarte-erantzukizunaren esparru guztietan egindako ahalegina aintzat hartzen dute. **Euskadiko Kutzak “Enpresa Handia” kategorian jaso du saria**, eta Gaztempresarena izan da, hain zuzen ere, jardunbide egokien eredu gisa aurkeztutakoa. Epaimahaiak kontuan hartu du ekintza horren multistakeholder izaera, langileak, bezeroak, hornitzaileak, komunitatea eta administrazio publikoa inplikatzeko baititu; era berean, kontuan hartu dituzte lortutako emaitzak ere, sorturiko enpresen eta lanpostuen datuak, hain zuzen ere.

### **BERRIKUNTZAREN SARIA (EUSKALIT). Euskaliten 400 Kluba**

Gaztempresa aurkeztu zen berrikuntzako eta kudeaketako jardunbide egokien sailera, eta 6 finalisten artea sailkatu gara. Berrikuntzaren saria jaso dugu, azken urteetan Gaztempresa zerbitzu-ereduan egindako aldaketei esker.

### **SAN PRUDENCIO LAN FUNDAZIOAREN SARIAK**

Finalista izan gara San Prudencio Lan Fundazioak ematen dituen enpresako jardunbide egokien sarietan, 2010eko Enpresaren Gizarte Erantzukizuna kategorian.

JASOTAKO  
SARIAK



PREMIOS  
CORRESPONSABLES







internet

A screenshot of the gaztempresa website. The header features the logo 'gaztempresa FUNDAZIOA' and navigation links: '¿QUÉ ES GAZTEMPRESA?', 'BUCURSALES CAJA LABORAL', 'SALA DE PRENSA', 'LINKS DE INTERÉS', and 'EUSKERA'. The main content area is divided into several sections. On the left, a sidebar titled '¿cuándo empezamos?' lists services like 'Servicios de Asesoramiento', 'Plan de financiación', 'Equipamiento del nuevo negocio', and 'Consulting - PRO'. Below this is a login section for 'red gaztempresa' with fields for 'Usuario' and 'Contraseña', and buttons for 'entrar', 'regístrate', and '¿Olvidaste tu contraseña?'. The main content area has a section '¿cuándo empezamos?' with a list of services. To the right, there's a large section titled 'Cuéntanos tu proyecto' with a woman holding a laptop. Below this is a section 'Únete a la primera red-online de empresas del País Vasco y Navarra' with a laptop showing a video call. On the far right, there are three circular callouts with text and images of people: 'Crea que has llegado el momento de dejar mi actual trabajo y montar mi propia empresa', 'Acabo de terminar los estudios y tengo un proyecto que quiero hacer realidad', and 'Queremos ampliar los servicios que ofrece nuestra empresa con una nueva línea de negocio'. The footer includes 'Únete. Cada día somos más.' and the 'a lentum' logo.



GAZTEMPRESA  
SAREA

dagoeneko  
800 gara



# SARE SOZIAL

➔ EKINTZAK:

hemen ere aurkituko  
gaituzu:


facebook  
twitter  
LINKEDIN  
youtube



<http://www.facebook.com/gaztempresa>

<http://twitter.com/RedGaztempresa>

<http://youtube.com/gaztempresa>



"Gure xedea:  
Produktu berezitu  
bat eskaintzea"



900 10 11 43

[www.gaztempresa.com](http://www.gaztempresa.com)

[bizkaia@gaztempresa.com](mailto:bizkaia@gaztempresa.com)

[gipuzkoa@gaztempresa.com](mailto:gipuzkoa@gaztempresa.com)

[alava@gaztempresa.com](mailto:alava@gaztempresa.com)

[navarra@gaztempresa.com](mailto:navarra@gaztempresa.com)